

Sareen sareea

Euskadiko Hirugarren
Sektore Soziala

Tercer Sector Social
de Euskadi

PLAN ESTRATEGIKOA

2016
2019

2016ko maiatza



AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	2
1. AURKEZPENA	3
2. HITZAURREA	4
3. PLAN ESTRATEGIKOA PRESTATZEKO PROZESUA.....	6
4. EGITEKOAREN ADIERAZPENA	9
5. NORTASUNA	10
5.1. Historia	10
5.2. Balioak.....	14
6. EGOERAREN AZTERKETA: ingurunearen eta hirugarren sektorearen joerak.....	18
7. 2019RAKO IKUSPEGIAREN ADIERAZPENA.....	22
8. HEDAPEN ESTRATEGIKOA	23
9. JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA.....	25



AURKEZPENA

Dokumentu honetan Sareen Sarearen 2016-2019 Plan Estrategikoa aurkezten dizuegu. Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorearen sareen sareak prestatutako lehen plan estrategikoa da hau. Aurrerapauso aipagarria Sareen Sareak irudikatzen duen errealitate soziala egituratzeko prozesu historikoan.

Egitura handi, anitz, aktibo eta eraldatzaile honek euskal geografia osoko pertsonen, familien eta komunitateen eskubideak defendatzen dituzten eta haien premia sozialak asetzen dituzten gizarte-ekimeneko, ekintza boluntarioko eta irabazi asmorik gabeko milaka erakunde, hamarka mila boluntario, profesional eta bazkide biltzen ditu.

Azken hilabeteotan sare eta erakunde ezberdinetan ordezkatuta dauden gizarte-eremuetatik abiatutako prozesu parte-hartzaile bat egin dugu, 2019ko helmugari begira, Sareen Sarean sustatu nahi ditugun ekintzen eta estrategien ikuspegi komuna eta bateratua lortu ahal izateko.

Sareen Sareak Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorea biltzen duen erreferentziako erakundea, gainerako eragile sozial, politiko eta instituzionalengan eragiteko eta haiekin elkarriketatzeko gaitasuna duen gizarte-eragilea izan gura du, elkarlanean arituz gizarte justuagoa, kohesionatuagoa, inklusiboagoa, solidarioagoa, berdinzaleagoa, parte-hartzaileagoa eta demokratikoagoa eraikitzeko.

Hirugarren Gizarte Sektoreko, administrazioetako, erakunde publikoetako, alderdi politikoetako, unibertsitate- edo ikerketa-munduko, sindikatu eta gainerako gizarte-eragileetako erakundeen sareetako pertsonen eskerrak eman nahi dizkiegu introspektiboa den eta, aldi berean, testuinguru sozialaren laguntza baliotsua behar duen lan honetara egindako ekarpenagatik.



HITZAURREA

Sareen Sarearen 2016-2019 Plan Estrategiko hau Sareen Saretik bertatik koordinatu dugun lan-prozesu ireki eta parte-hartzaile baten emaitza da. Prozesu horretan ideiak, hausnarketak eta ekintzak eraikuntza kolektiboaren ikuspegitik mugitzen ahalegindu gara, Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektore gisa, hurrengo urteetarako jardunbidea bideratzeko helburuarekin. Prozesuaren hasieran antzemandako lehen erronketako bat lehen estrategia bateratuaren prestakuntzan lan egiteko espazioa sortzea izan da. Ariketa zirrargarri honen abiapuntua Sareen Sarea osatzen dugun sare guztiek diskurtso bateratu baten garapenean eta, sare estrategiko gisa, begirada kolektibo baten eraikuntzan aurrera egiteko beharra izan da.

Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeen sareak Sareen Sarea izenpean elkartu gara. Herritarren ekimenez sortuak izanagatik autonomoak eta solidarioak diren irabazi asmorik gabeko erakunde pribatu eta boluntarioz osatutako Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorearen egitura sozial, anitz eta aktiboaren ordezkariak gara.

Hirugarren Gizarte Sektoreaz hitz egitean aldarrikatzen dugu gizarte zibiletik sortutako eta eraldaketa sozialera bideratutako gizarte-ekimeneko eta esku-hartze sozialeko erakundeak garena, sustapen soziala eta gizarteratzea direla gure helburuak, bereziki, bazterkeria jasaten duten edo ahultasun-egoeran dauden pertsonen, familien, kolektiboen edo komunitateen kasuan, eta haiei eskubide sozialak eraginkorki baliatzen eta gizarte-ongizatea lortzen laguntzeko jarduerak egiten ditugula.

Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorea funtsezko eragilea da euskal gizartean:

- euskal gizarte justu, solidario, kohesionatu, parte-hartzaile eta demokratiko bat eraikitzeko;
- herritarren eta hartzailleen parte-hartzea bideratzeko;
- eta, orain arte egin duen bezala, herritarren eskubideen aitorpenean eta erabileran, hala nola, esku-hartze sozialaren eremuan, erantzukizun publikoko sistemen konfigurazioan eta hedapenean ekarpenak egiten jarraitzeko.

Gure erakundeek kapital sozial, kapital erlazional eta giza kapital garrantzitsua bideratzen dute. Horiek horrela, sareak eratzen joan dira, eta sare horiek bigarren mailako erakundeetan elkartu dira. Ikusi dugun bezala, Euskadin sektorea sare desberdinen osaketaren eta, 2014. urtean, Sareen Sarearen eraketaren ondorioz egituratzen joan da. Zalantzarik gabe, Euskadin Hirugarren Gizarte Sektoreak bizitako indartze- eta egituratze-prozesuak, beste eragileei dagokienez, elkarriketa zibila (gizarte zibila sektore publikoarekin), hala nola, eragileen artean, gizarte- eta garapen-ereduaren gaineko eztabaida sustatzea ahalbidetu du.

Plan estrategikoa prestatzeko unean, Sareen Sareak Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko¹ erakundearen sare hauek hartzen ditu barne:



Konturatu gara gizarte-joera eta behar berriak agerrarazi dituen egungo krisi ekonomiko, sozial, politiko, instituzional eta etikoak planteatzen dituen erronka aldakorrei aurre egin behar diegula; hori dela eta, uste dugu beharrezkoa dela hurrengo urteetan gure sarearen oinarritzko orientazioak zeintzuk izango diren finkatzeko eta azaltzeko plangintza egitea.

¹ <http://www.sareensarea.eu/>



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektorre Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

PLAN ESTRATEGIKOA PRESTATZEKO PROZESUA

Hausnarketa sakon hori egiteko, Sareen Sarearekin eta Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorrearekin lotura duten sare, erakunde eta pertsonen parte-hartzea beharrezkoa izan da.

Hausnarketa-prozesuari esker, sarearen ibilbidearen irakurketa bateratua egin eta haren nortasuna zein helmuga denon artean definitu ahal izan dugu. Horretarako, Zuzendaritza-batzordeko, talde teknikoko eta sarearen osatzen duten erakundeetako pertsonen parte-hartze egituratua Hirugarren Gizarte Sektorreko bestelako Estatu-sareekin, erakunde publikoekin, alderdi politikoekin, sindikatuarekin, unibertsitateekin, eragile sozioekonomikoekin eta Hirugarren Gizarte Sektorrean ospe handia duten pertsonarekin alderatu da, zeinek Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorrearen testuinguruaren eta errealitatearen gaineko ikuspuntuak jakinarazi dituzten, ideiak eztabaidatuz eta hurrengo urteotan Sareen Sareak aurretik duen bidea egiteko baliagarriak izan daitezkeen jardura-proposamenak eskainiz.

Proposatutako metodologiaren bidez, Sareen Sarearen entitatea osatzen duten alderdi guztien (gure nortasuna, gure balioak, gure helburuak, gure estrategiak, gure gaitasunak eta, jasangarritasunaren ikuspegitik, planteamendu errealista egitea) arteko koherentzia bilatu dugu. Era berean, Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorrearen dibertsitatea, haren heterogeneotasuna, lurralde-aniztasuna, sare zein erakundearen tamaina eta jarrera desberdinak islatzen saiatu gara, Sareen Sarea osatzen duten erakundearen arteko adostasunaren alde apustu eginez. Zalantzarik gabe, Sareen Sarearen koherentzia sortzeko eta, gure arteko desadostasunak eta aniztasuna kontuan hartuta, sare gisa elkarrekin aurrera egitera bultzatzen gaituzten sinergiak zein helmugak bilatzeko (Plan Estrategiko hau, besteak beste) beharra ikusten dugu.



Horiek horrela, elkarrekin eta gure heterogeneotasunetik abiatuta, gure nortasuna eta estrategiak berrikusi eta hitzartu ditugu:

- errealitate sozialaren bilakaera aztertuz, joerak eta horiek Hirugarren Sektorearen etorkizunean izango duten eragina identifikatuz;
- bilakaeraren gakoak identifikatuz, esparru soziala, legala, politikoa eta teknikoa kontuan hartuta;
- gure egitekoa eta asmoak Hirugarren Gizarte Sektorearen etorkizunaren gaineko aurreikuspenetara egokituz;
- hurrengo 2016-2019 denboraldirako gure ikuspegia mugatuz;
- gure balio eta oinarri nagusiak aldarrikatuz;
- eta 2016-2019 denboraldirako estrategiak, helburu estrategiko eta operatiboak prestatuz.

Hausnarketa-metodologia koordinatzeko lantalde bat sortu da, Talde Eragilea delakoa; talde hori gure Zuzendaritza-batzordeko pertsonen eta Sareen Sarearen koordinatzaile teknikoak osatzen dute.

Talde honek Fundación EDE aholkularitza-enpresaren laguntzarekin lan egin du, plan estrategikoaren zati ezberdinen inguruko irizpideak adosteko eta finkatzeko helburuarekin, hainbat lan-saio eginez. Taldeak egindako lana Sareen Sarea osatzen duten sareekin egiaztatu eta partekatu dugu.

Prozesuan Sareen Sarea osatzen duten sare guztiek parte hartu dute. Gainera, inguruko erakunde eta instituzioetara hurbildu gara Sareen Sarea nola ikusten duten, etorkizunerako proposamenak eta elkarrekin lan egiteko aukerak aztertzeko.

Plana prestatzeko lan orokorra egiteko Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorearen inguruko iturriak, galdeketak, elkarrizketak eta hausnarketaren ardatz nagusiak (erakundearen nortasuna, sarearen testuinguruaren eta Hirugarren Gizarte Sektorearen gaineko iritziak, barneko errealitatea, etorkizunerako proposamenak eta aukerak, estrategiak eta jardunbideak, antolakuntza-egitura eta jarraipen zein ebaluazio adierazleak) jorratzen dituzten tailerretako dokumentuak berrikusi dira.

TEKNIKOA		HELBURUAK
1. Dokumentazioa berraztertzea		Hirugarren Gizarte Sektorearen diagnostiko eta orientazioei buruzko informazioa eta dokumentazioa aztertzea
2. Barne-galdeketa		Hausnarketa estrategikoaren ardatzen gaineko lehen ideiak aurkeztea
3. Talde eragilea		Galdeketa, elkarriketa eta lan partekatuko tailerretan hausnarketa ardatz nagusien gainean egin diren hausnarketara ekarpenak egitea
4. Elkarriketa adituekin		Adituen ikuspegia ezagutzea, hausnarketa estrategikoaren ardatzen edukiaren gainean hausnarketa, azterketa eta orientazioak egitea
5. Tailerrak Sareen Sareko erakunde eta sareekin zein sareetatik kanpoko pertsonekin		Lan-prozesuan hausnarketa estrategikoaren ardatzen edukiaren gaineko hausnarketa, azterketa eta orientazioak egitea

Azken fasean, fase guztietan bezala, erabakiak hartzeko Sareen Sarearen espazio formalean zirriborro hau kontrastatu eta baliozkotu egingo da.

Ildo horretan, eta plan estrategiko hau prestatzen laguntzeko egin duten esfortzuagatik, honako pertsona, erakunde, sare eta instituzio parte-hartzailei² eskerrak eman nahi dizkiegu haien laguntzagatik:

² **Elkarriketatutako pertsonak:** Imanol Zubero (UPV/EHU), Gregorio Rodríguez Cabrero (Alcalako Unibertsitatea), Lide Amilibia (Eusko Jaurlaritza), Rafael López-Aróstegui (Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia), Fernando Fantova (aholkularia), Joseba Zalakain (SIIS-Egia Careaga Fundazioa), Luciano Poyato eta Elena Rodríguez (Hirugarren Sektoreko Plataforma), Toni Codina (Kataluniako Taula d'entitats del Tercer Sector Social). **Donostiako World-café jardunaldian (2016/01/12) parte hartu zuten pertsonak eta instituzioak:** Iñigo Pombo (Bilboko Udala), Aitziber San Román (Donostiako Udala), Sara Buesa (Vitoria-Gasteizko Udala), Begoña Moraza (Arabako Foru Aldundia), Susana González eta Gabin Azaola (Bizkaiko Foru Aldundia), Lide Amilibia, Isabel Rejado eta José Antonio de la Rica (Eusko Jaurlaritza), Aintzane Gutiérrez (Emakunde), Mikel Ruiz (CESV), Rosa Lavín (EGES), Arantza Vázquez (LAB), Felisa Piedra (CCOO), Belén Arrondo eta Álvaro Marcos (EH Bildu), Jon Aiertza (EAJ) eta Txaro Sarasua (PSE). **Donostiako World-café jardunaldian (2016/01/12) parte hartu zuten pertsonak eta sareak:** Ana Dávila eta Javier Domínguez (ONCE), Agustín Tranche eta

Iñigo Vidaurrezaga (HIREKIN), Pablo González eta Valeria García-Landarte (FEVAS), Esteban Rivas (GIZATEA), Mikel Malcorra (ELKARTEAN), Jose Ignacio del Pozo, Manuel Merino eta Mikel Mirena (LARES Euskadi), Unai Conde eta Susana Cuesta (HARRESIAK APURTUZ), Manu Moreno eta Alfonso López (EAPN Euskadi), Pablo Moratalla eta Iñaki Alkorta (EHLABE), M^a José Cano eta M^a Ángeles Arbaizagoitia (FEDEAFES), eta Gonzalo Rodríguez (REAS Euskadi). **Donostiako jardunaldiaren esparru-txostena:** Rafael López-Aróstegui (Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia). **Donostiako World-café mahaiaik dinamizatu zituzten pertsonak:** Maider Martiarena, Xurda Imatz, Roberto Folgueira, Ignacio Sanz eta Eduardo Escobes (EDE Fundazioa). **Komunikazio-planaren aholkulari-taldea:** Romina Sostengo, Javi Atxa eta Joseba Menéndez (ST3 Elkartea). **Gasteizko barne-jardunaldian (2016/03/08) parte hartu zuten pertsonak eta sareak:** Nacho Loza, Pablo González eta Mixel Lakunza (FEVAS), Aitor Gazteluiturri, Gonzalo Rodríguez eta Carlos Askunze (REAS Euskadi), Pablo Moratalla (EHLABE), M^a José Cano (FEDEAFES), Natalia Díez-Caballero (HIRUKIDE), Esteban Rivas eta Jon

Igartua (GIZATEA), Iñigo Vidaurrezaga (HIREKIN), Mikel Malcorra eta Juan Carlos Sola (ELKARTEAN), Unai Conde (HARRESIAK APURTUZ), Txema Odriozola eta Jaime Zubia (EUSKOFEDERPEN), Javier Domínguez, Ana Dávila eta Rafael Ledesma (ONCE), eta Manuel Merino (LARES Euskadi). **Plan estrategikoaren talde eragilea:** Gonzalo Rodríguez, Pablo González, M^a José Cano, Mikel Rebolledo, Esteban Rivas eta Mikel Barturen. **Sareen Sarearen Zuzendaritza-batzordea:** Gonzalo Rodríguez (REAS Euskadi), Pablo González (FEVAS), M^a José Cano (FEDEAFES), Mikel Rebolledo (LARES Euskadi), Esteban Rivas (GIZATEA), Javier Domínguez (ONCE) Pablo Moratalla (EHLABE), Natalia Díez-Caballero (HIRUKIDE), Txema Odriozola (EUSKOFEDERPEN), Iñigo Vidaurrezaga (HIREKIN), Mikel Malcorra (ELKARTEAN), Alfonso López (EAPN Euskadi) eta Susana Cuesta (HARRESIAK APURTUZ). **Komunikazio-planaren aholkulari-taldea:** Gorka Ruiz, Pedro Beitia eta Eduardo Escobes (EDE Fundazioa). **Sareen Sarearen talde teknikoak:** Mikel Barturen, Eva García eta Imaya Goikoetxea (Sareen Sarea).

EGITEKOAREN ADIERAZPENA

Egitekoak labur definitzen ditu Sareen Sarearen nortasuna eta helburuak, eta gure ibilbidearekin bat dator. Sareari bere existentzia osoan zehar zentzua ematen dion definizio iraunkorra da. Gizarteari nor garen helarazten lagundu ez ezik, sarea osatzen duten sareen eta pertsonen aurrean nor garen adierazten du ere.

Nor gara?

Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorearen Sareen Sarea gara.

Zein da gure asmoa?

Sareen Sareak helburu bikoitza du:

- gizarte elkartua, inklusiboa, solidarioa eta parte hartzailea sustatzea, pertsona guztien eskubideak modu berean errespetatuko dituen eta, batez ere, ahulenei arreta berezia jarriko diena; baita guztion ongizatea eta eraldaketa sozialarekiko konpromiso aktiboa bultzatzea ere.
- Sareen Sareak Hirugarren Gizarte Sektore elkartu, indartsu eta onartu baten alde lan egiten du, eragile sozial zein instituzionalekin elkarriketarako gaitasuna duen sektorea izatea baitu helburu.

Zer lortu nahi dugu?

- Gizarte justu, inklusibo, solidario, parte-hartzaile eta kohesionatu bat sustatzea.
- Bizi-kalitatea eta pertsonen eskubideen defentsa hobetzea.
- Hirugarren Gizarte Sektorea indartzea.
- Politika publikoetan eragina izatea.

Nola lortu nahi dugu hori?

- Egungo ereduak jarriko jarriko kritikoa erakutsiz.
- Behar-egoerak eta eskubideen urraketak salatuz.
- Erreferentziako gizarte-eragile bilakatuz.
- Sareen eginkizuna indartuz eta haien ahotsa hedatuz.
- Gizartea sentsibilizatuz.
- Administrazioekin, gizarte-eragileekin eta, oro har, gizartearekin hitz eginez.

Zer egiten dugu?

- Intzidentzia politikoa eta instituzionala.
- Intzidentzia soziala.
- Hedapena.

Nor gara?

- Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorearen sare eta erakundeak.
- Egitura profesional eta antolatua gara (Sareen Sarearen koordinazio- eta administrazio-taldea), eta gizarte-sareen inplikazioa eta parte-hartzea lortu dugu.

Gizarte elkartua, inklusiboa, solidarioa eta parte-hartzailea sustatzea, pertsona guztien eskubideak modu berean errespetatuko dituen eta, batez ere, ahulenei arreta berezia jarriko diena; baita guztion ongizatea eta eraldaketa sozialarekiko konpromiso aktiboa bultzatzea ere.

Sareen Sareak Hirugarren Gizarte Sektore elkartu, indartsu eta onartu baten alde lan egiten du, eragile sozial zein instituzionalekin elkarriketarako gaitasuna duen sektorea izatea baitu helburu.

NORTASUNA


5.1. SAREEN SAREAREN HISTORIA

Garrantzitsua da eratu zenetik sareak bizi izan duen prozesu historikoa eta sarearen ibilbidea mugatu duten alderdiak identifikatzea. Sarea sorrarazi zuen beharren bilakaera ulertu ahal izateko, historiara jo behar dugu.

Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorearen Sareen Sarearen historia sektore horretako erakunde eta entitate sozialen sorrerarekin lotuta dago. Egun Hirugarren Gizarte Sektore esaten zaionaren jatorria, *"jarduera lurralde zehatz batean garatzen duten eta jarduera oro har gizarte-ongizatera bideratzen duten kudeaketa autonomoko, irabazi asmorik gabeko eta oro har boluntarioekosatzen duten gizarte zibilaren ekimen formalizatu, aktibo eta independenteekosatzen dutena, zeinen helburua den alor ezberdinetatik (kultura, gizarte-ekintza, ingurumena, kirola, etab.) gizarte-ingurua hobetzea, behar sozialei erantzunez eta herritar guztien bizi-maila hobetzen lagunduz³, 60ko hamarkadaren amaieran eta 70eko hamarkadaren hasieran koka dezakegu.*

Harrezkero, besteak beste, urritasunaren, adinekoen, bazterketaren, langabezian dauden pertsonen, gaixotasun bat duten pertsonen, etorkinen, gazteen, garapenerako lankidetzaren, giza eskubideen, ingurumenaren, euskararen, kulturaren eta kirolaren eremuan lan egiten duten gizarte-eragileek egituraketa- eta finkapen-prozesu etengabea bizi izan dute, bai erakundeen mailan bai behar sozial horiei guztiei erantzun antolatua emateko helburuarekin sortutako sare eta plataformen mailan.

³ Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorearen Liburu Zuriak barne hartzen duen Hirugarren Gizarte Sektorearen definizioa



Sareen Sarearen aurrekari nagusia sarea osatzen duten sare sektorialen sorrera bera da. Prozesua 80ko hamarkadan hasi zen, 90eko hamarkadan jarraitu zuen eta dagoeneko berrogei urte bete ditu.

Sareen Sareari dagokiolarik, Euskadin eremu sozialean existitzen diren beharrei erantzuten lan egiten duten sare ezberdinak elkartzen dituen sare gisa, 2009. urtean eratu zela esan dezakegu, hiru hamarkadez sare sektorialak osatu eta finkatu ondoren. Urte hartan sareen eta administrazio publikoen hainbat dinamiek bat egiten zuten, eta aurrerapauso hori elkarrenganako aitopenerako, elkarriketarako eta elkartzeko erreferentziako topaguneak sortzeko beharra ondorioztatu zuten elkarriketetara gauzatu zen. Ikuspegi partekatu hori oinarri hartuta sortu zen Sareen Sarea.

Lehen urteak bost etapa desberdinetan bana ditzakegu:

- A.- Elkar ezagutzeko eta bateratzeko barne-lana (2009-2014)
- B.- Elkarriketa zibila (2009-2016) eta Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan parte hartzea (2012-2016)
- C.- Sarea formalki osatzeko prozesua (2014)
- D.- Idazkaritza tekniko profesionalizatua (2015)
- E.- Hausnarketa estrategikoko prozesua eta komunikazio-plana (2015-2016)



A.- ELKAR EZAGUTZEKO ETA BATERATZEKO BARNE-LANA (2009-2014)

2009aren amaieran eta 2010aren hasieran sareen lana eta bilerak areagotu egin ziren administrazio publikoekin mantendu beharreko elkarrizketari aurre egiteko posizionamenduak bateratze aldera. Izan ere, gizarte-zerbitzuen saila sareen lana ardazten duten alderdietako bat da.

Paraleloan, sareek artatzen zituzten errealitateen eta topatzen zituzten beharren elkarrenganako ezagutza lan egiten jarraitu zuten. Horiek horrela, 2010eko maiatzean Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiak lehen jardunaldia antolatu zuen Deustuko Unibertsitatean.

(Hirugarren Sektorearen Behatokiaren jardunaldia. Hirugarren sektorea gizarte-eragile gisa. Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Liburu Zuriaren aurkezpena. 2010/05/28)

2013ko otsailean, sareak Aspalduko egoitzan bildu ziren egoeraren diagnostiko partekatua egiteko eta, sareen sarearen antolakuntzari begira, adostasun-elementuak eraikitze helburuarekin.

(Sareen bilera Aspalduko egoitzan, 2013ko otsailaren 12an)

2013ko urrian Gizarte-ekintzako Hirugarren Sektorearen aurreko eta egungo ekarpenari buruzko bideo bat (Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiak eta Sareen Sareak egindakoa) aurkeztu zen.

(Bideoa: Gizarte-ekintzako Hirugarren Sektorearen aurreko, egungo eta etorkizuneko ekarpena. 2013ko urriaren 11)

2014ko urrian, sareak ONCEren egoitzan elkartu ziren Sareen Sarearen lehen lan-egitasmoa prestatzeko.

(Sareen Sarea osatzen duten sareen bilera ONCEren egoitzan, 2014ko urriaren 28an)

B.- ELKARRIZKETA ZIBILA, AGERTZEAK ETA EKONOMIA ETA GIZARTE KONTSEILUAN PARTE HARTZEA (2009 ETA 2012-2016)

Sareen Sarearen sorrerarako 2009aren amaieran Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak sustatu zuen eta 2010eko martxoan formalki eratu zen Elkarrizketa Zibileko Mahaia ekimena une garrantzitsua izan zen.

2012ko urrian, sareak Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan (euskal EGK) parte hartzen hasi zen, gizarte-ekintzako Hirugarren Sektoreko erakunde ordezkaritzan.

Lehen urteetan zehar, Sarearen Sareak elkarrizketa eta eztabaida etengabeak mantendu zituen erakunde publikoekin.

Sareak parlamentuko alderdi politikoekin etengabe lan egiten eta hitz egiten du Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorearekin erlazionatutako alderdi guztien inguruan.



*Elkarrizketa Zibileko Mahaia aurkezpena,
2010eko martxoan*

C.- SAREA FORMALKI OSATZEKO PROZESUA ETA AURKEZPEN PUBLIKOA (2014)

2014ko lehen hilabeteak estatutuen prestakuntzari eskaini zitzaizkion. Lan-prozesua apirilaren 8an amaitu zen, Sareen Sarearen estatutuak Elkarteen Erregistroan gorde zirenean.

Formalki eratzekeo prozesu horretan, Sareen Sarea 2014ko ekainaren 16an aurkeztu zen jendaurrean. Ikus bideoa



Elkarrizketa Zibileko Mahaia, 2012ko apirila

D.- EGITURA TEKNIKO PROFESIONALIZATUA (2015)

2015eko lehen sei hilekoan, idazkaritza tekniko gisa, sarea koordinatzeaz, kudeatzeaz eta administratzeaz arduratuko zen egitura tekniko profesionalizatu bat kontratatzekeo aurretiko lanak egin ziren.

E.- PLANGINTZA ESTRATEGIKOKO HAUSNARKETA-PROZESUA (2015-2016)

2015eko bigarren sei hilekoan eta 2016aren hasieran, Sareen Sareak plangintza estrategikoko hausnarketa-prozesua hasi zuen. Ikus berria



Elkarrizketa Zibileko Mahaia, 2015eko urria



Iñigo Urkullu lehendakariarekin 2015eko apirilean egindako bilera



Eusko Legebiltzarrean agertzea, 2015eko iraila



Hausnarketa estrategikoko jardunaldia, 2016ko urtarrila



5.2. BALIOAK

Sareen Sarearen balioak antolamendu-proiektuarekin bat datoz. Balio horiek sarean osatzen duten pertsonen eta taldeen jokaera eta jarreretan gauzatzen dira. Baina Sareen Sarearen antolamendu-jarrerak ez dira sortzetikoak, pixkanaka bereganatzen, ikasten, aldatzen eta garatzen ari dira. Gure nortasunaren funtsezko parte bat dira.


Gure asmoa da Sareen Sarearen balioak:

- barneko eta kanpoko beste hainbat jokaera zehatzetan gauzatzea.
- arauekin lotura izatea, hauek baitira jokabideak zehazteko moduetako bat, baina ez bakarra.
- Sareen Sarearekin harremana duten pertsona guztiek balioen berri izatea.
- Sareen Sarearen eta haren kideen eguneroko lana orientatzen duen tresna etiko bihurtzea.
- erabakiak hartzeko eta konpromiso zehatzak argi eta garbi adierazteko gida izatea, bai barne-dinamiketan bai kanpo-dinamiketan.

Balioek gure jokaera dimentsio guztietan gidatzen dute eta jarduera zein ekintzetan entitate gisa dugun zereginean, barne-funtzionamenduan eta inguruarekin ditugun harremanetan garatu egiten dira.

Honako funtsezko balio hauek identifikatu dira:

Elkartasunaren, eraldaketaren, kooperazioaren eta gardentasunaren balioak dira **egitekoaren** euskarri; hala nola, **aniztasunaren eta independentziaren** konpromiso eta defentsa irmoa, eta barne-demokrazia ordezkatzaille bat, **parte-hartzea, autonomia eta errespetua** garatzearen aldeko apustua.



ELKARTASUNA

Egoera kaltetuenetan daudenen eskubideen ardura.

ERALDAKETA

Eraldaketa sozialaren erantzukizuna eta konpromisoa, eskubideen defentsa eta aldarrikapena; herritarren parte-hartzea eta erantzukizun aktiboa bultzatuz.

GARDENTASUNA

Erabakiak eta informazioa gardentasunez tratatzea da Sareen Sarearen erantzukizuna, informaziorako sarbidea erakundeetako kideei, administrazio publikoari, gizarte-eragileei eta gizarteari emanaz.

KOOPERAZIOA

Hirugarren Sektoreko erakundeekin, administrazioarekin eta herritarrekin kooperatzea, partekatutako helburuak eta aurreikusitako egitekoa betetzeko.

ANIZTASUNA

Sareen Sarearen kideen eta sektorearen beraren aniztasuna onartzea, parte hartzea eta barne-demokrazia bermatuz.

INDEPENDENTZIA

Pentsamendurako eta ideologiarako independentzia, eta independentzia instituzional, politiko eta ekonomikoa, gure elkarriketa eta eragina gizarte-eragileekin ez nahasteko.

DEMOKRAZIA

Egitekoa eta ikuspegia lortze bidean, erabakiak bidezko parte-hartzearekin eta erantzukizun partekatuarekin hartzea, kide guztiek onartutako diskurtsoak, posizionamenduak eta akordio inklusiboak lortzeko.

AUTONOMIA ETA ERRESPETUA

Sare bakoitzaren errealitatearekiko eta Sareen Sarearen diskurtsoarekiko, posizionamenduarekiko eta aldarrikapenarekiko errespetua erakustea, interes komunen alde lan eginez.

EGOERAREN AZTERKETA:

ingurunearen eta hirugarren sektorearen joerak

JOERA SOZIALAK, POLITIKOAK ETA EKONOMIKOAK

Plan estrategikoa prestatzeko prozesuan agertu diren eta zuzenean eragiten diguten joeren inguruko hainbat hausnarketa⁴ zehazten dira jarraian:

GIZARTE-EREMUARI DAGOKIONEZ

Krisi ekonomiko eta finantzarioak hainbat ondorio eragin ditu gizartearen. Lehenik, erdi mailako klaseen egoera prekarizatu eta ahuldu egin da; horren ondorioz, desberdintasunak areagotu dira eta dualtasun soziala geroz eta handiagoa da. Bazterketa-guneak eta pobrezia-egoerak kronifikatu egin dira eta, era berean, herritartasun osoko baldintzetatik gero eta gehiago urruntzen gaituen dinamika batean murgilduta gaude, non problematikak banakatu egiten diren eta izaera globaleko pobrezia forma berriak agertzen diren. Egoera horrek hartzaileen kopuruaren igoera eta haien profilaren dibertsifikazioa eragin du.

Egungo egoeraren ondorioez gain, besteak beste, emakume asko etxera eta etorkin asko haien jatorriko herrialdeetara itzuli direla, gazteak langabezian daudela, langabeek beste herrialdeetara migratzen dutela, gazteak geroz eta beranduago emantzipatzen direla, urritasuna duten pertsonen lan egiteko aukera gutxiago dituztela eta adinekoek koltxoi soziala direla gehitu daiteke.

Krisia betiko kolektiboekin (emakumeak, gazteak, etorkinak eta adinekoak) grinatzen dela eta pertsonen zein familien bizitza-proiektuak garatzea eragozten edo oztopatzen duela ikusten dugu. Era berean, krisi ekonomikoa amaitu bada ere, krisiaren ondorio sozialak **denboran luzatu** direla egiaztatu da.

ERAKUNDEEN ETA GIZARTE-ERAGILEEN EREMUARI DAGOKIONEZ

Ikuspegi globala eta **instituzio tradizionalen** (familia, alderdi politikoak, sindikatuak, erakunde publikoak, eliza, etab.) **"krisiaren"** planteamendu bat egiteko beharra nabarmentzen da. Aldaketa sozial eta instituzionaleko prozesuaren azpian dauden oinarriekin eta beharrekin konektatzea lortzen badugu, krisi horrek bilakaera onuragarria izan dezake (aldaketa- eta irekiera-egoera bezala ulertuta).

Askotarikoak dira krisi- edo eraldaketa-egoeran sartu diren elementuak:

- **Familiaren "krisia"** (familia- eta bizikidetzareduen dibertsifikazioa, rolen aldaketa, familia nuklearraren eta familia zabalaren tamainaren eta harremanen aldaketa eta familiek bestelako sozializazio-agenteeekin eta, bereziki, eskolarekin duten harremanaren aldaketa direla bide) eta **zainketa informalaen "krisia"**. Familiek eta pobrezia-aren zein desberdintasun-baldintzen ugalketak agerian jartzen dute familiak babesteko euskal estrategia bat behar dela.



- **Sozializazio-agentek** (familia, eskola, pareko taldea, komunikabideak, sare sozialak, etab.). Oraindik ez da egin balioetan oinarritutako hezkuntzaren eta, sozializazio-prozesuetan familiek zein gizarteak duten erantzukizunaren inguruko eztabaida.
- **Babes informala, elkarrekiko laguntza, auzotarren arteko elkartasuneko eta komunitate-laneko ekimen informalak.** Krisiarekin batera, geroz eta handiagoa den indibidualismoaren joera jarraituz, loak hartzen eta desaktibatzen hasiak ziren ekimen horiek apur bat indarberritu dira
- **Alderdi politiko tradizionalei eta sindikatuei** gizartearekiko konexioa galdu izana, herritarren benetako beharrak ahaztu izana, burokratizatuak egotea, haien barruan parte-hartzea ez sustatzea eta gizartearekin eztabaidatzeko irekiak ez izatea aurpegiratzen zaie.
- **Sektore publiko, exekutibo eta legegintzakoari** ere gizartearekiko konexioa galdu izana, gizartea ez ordezkatzeko, gizartearen proposamenekiko irekiak ez izatea (legegintzako herri-ekimenak gauzatzeko zailtasunak) edo lankidetzeta-esperientzia urriak eskaintzea aurpegiratzen zaie. Honekin batera, ustelkeria kasuak eta gardentasunik eza aldarrikatzen dira. Nolanahi ere, parte-hartzean, inklusioan eta demokrazia ordezkatzailerako egungo eredutik -hori baztertu gabe- demokrazia parte-hartzaileago baterantz irekitzeko eta aurrera egiteko prozesuan aldaketa handiak egiteko beharra azpimarratzen da.
- **Enpresa tradizionalak** ere krisi-egoeran daude produktuarekiko (eta ez sistema-bezeroarekiko) eta produktu bakarrarekiko (monolaborantza) gehiegizko orientazioa izateagatik, nazioartekotzea urria izan delako, sail gehiegi dituztelako, atomizatuak, oso burokratizatuak eta

hierarkizatuak daudelako, (kanpoko eta barneko) parte-hartze gutxi onartzen dutelako eta, oro har, gutxitan bilatzen dutelako gizartearen edo interes orokorraren onura.

Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeek, erakunde sozial tradizionalak izanik, kritika berdinak jaso dituzte baita ere, arrisku berdinak dituzte eta, besteak beste, burokratizazioaren, gizartearekin eta herritarrekin duten konexioaren, hartzaileen eta boluntarioen parte-hartzearen gaineko hausnarketa egin behar dute.


JOERAK BESTE MAILETAN

Maila juridikoan, arauen garapena etengabea izan da, eta egoera horrek erantzun azkarrak ematea eta eremu guztietan, ez sozialean bakarrik, arrazoieta oinarritutako posizionamenduak edukitzea eskatzen du; irizpidea eta posizionamendua zerbitzuen, planen, estrategien eta abarren ordenamenduaren arabera izatea.

Administrazio-mailan, esleipen eta kontratazio publikoko sistema gero eta zorrotzagoa da teknikari dagokionez administrazioaren maila ezberdinetan (Europa, Estatu eta Erkidegoak).

Kultura-mailan, kolektibo tradizionaletan integratu diren nazionalitate eta kultura berrien presentzia nabarmendu beharra dago. Bestetik, gizartean geroz eta presentzia handiagoa duen garapen zorabiagarria, berriz, sektoreak behar bezala aurre egiten ez badio, mehatxu bilaka daitekeela uste da.

Behar sozial berriak ekimen eta kolektibo antolatu berrien sorrera sustatzen ari dira, bai eta mobilizaziorako eta herritarren parte-hartzerako kanal berriak ere. Izan ere, sare sozialak dinamika horren erakusle dira.



SEKTORE PUBLIKOARI ETA SEKTORE PUBLIKOAREN ETA PRIBATUAREN ARTEKO LANKIDETZARI DAGOKIONEZ

Aipatzekoak dira Ongizate-estatuaren erreforma eta jasangarritasunaren inguruko eztabaida. Besteak beste:

- Gizarte-zerbitzuetan egindako murrizketak.
- Zerbitzuen esternalizazioa, merkantilizazioa edota pribatizazioa.
- Sektore publiko eta pribatuaren arteko lankidetz-estrategien garapena, irabazpidezko ekimenarekin eta gizarte-ekimenarekin.
- Zahartze aktiborako estrategiak garatzea, zaintzaileei babesa ematea, prebentzioa lantzea, boluntarioria eta parte-hartzea sustatzea.

Sektore publikoari eta sektore publikoaren eta Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorearen arteko lankidetz-eguneari dagokielarik, adierazgarriak dira, ongizate-eredu baten eraikuntza bateratuari begira, harreman horretan jarritako itxaropenak. Horretarako, beharrezkotzat jotzen da aldean autonomiatik abiatuta ezagutzen eta onarpenean sakontzea gobernantza partekatuan edo **baterako gobernantzan** oinarritutako lankidetz-erreal eta eraginkor batera iritsi ahal izateko.

Erantzukizun publikoko zerbitzuen horniduran eta kasuaren koordinazioan lankidetzan aritzea, honako hauek bultzatzeko:


- Erantzukizun publikoa eta kudeaketa publikoaren nagusitasuna, gizarte-ekimenaren bidez (**eredu mistoa**).
- Irabazi-asmoen mugaketa edo gabezia interes orokorreko gizarte-zerbitzuetan.

Harreman- eta lankidetz-espazio honetan, agente publiko eta pribatu bakoitzaren zereginak definitzeko eta argitzeko beharra identifikatzen da. Lan partekatuko eremu zehatz bat **itunen sistema** da, kontratazio-eredu klasikoaren aldean.

Sektore publiko eta pribatuaren arteko harreman honetan, informazio-iturri, berrikuntza-eragile eta urraketen salatzaile gisa, sektorearen **autonomia** eta independentzia bermatzen dituzten baldintzak ezarri behar dira. Nola edo hala, agente leialaren eta aldaketa-edo eraldaketa-agentearen arteko beharreko oreka bilatzea da xedea.

Hurbiltasuna sektorearen ezaugarri erabakigarri eta identitario gisa, sektore publikoaren eremuan ere. Hirugarren Gizarte Sektoreak, eratzen ari den sektore publiko eta pribatuaren arteko lankidetz-egoera berrian, euskarria eta **segurtasun juridikoa** bermatzeko beharra adierazi du.

⁴ Ez dugu egoeraren eta joeren azterketa osoa egin nahi, baina errealitate sozialaren bilakaera aztertzeke zenbait gako aztertu nahi ditugu, hainbat joera eta horiek Hirugarren Sektorearen etorkizunean izango duten eragina identifikatuz.



EUSKADIKO HIRUGARREN GIZARTE SEKTOREA GAINBEGIRATUZ

2015ean Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorearen Liburu Zuria⁵ aurkeztu zen, Bizkaiko Hirugarren Gizarte Sektorearen Behatokiak Sareen Sarearekin elkarlanean egindako ikerketa.

Egun, Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorea, gutxi gorabehera, **3.500 erakundek** osatzen dutela kalkulatzen da. Erakunde horien %57ren egoitza edo ordezkaritza nagusia Bizkaian dago; %29rena Gipuzkoan, eta %14rena Araban.

Erakunde guztiek **etengabeko konpromisoa dute pertsonetikiko** eta sorrarazi dituen eta haien xede den **gizartearekiko**. Gainera, lurraldearekin lotura estua mantentzen dute eta, horrenbestez, bertan errotuta daudela esan dezakegu. 10 erakundetatik 8ren jarduerak ez du Euskadiko esparru geografikoa gainditzen eta %27k tokiko esparrutik egiten dute lan.

Erakunde horiek, gutxi gorabehera, **36.000 enplegatu** dituztela kalkulatzen da; horiek **125.000 boluntarioen** parte-hartze soziala bideratzen dute. 2013an, **1.451 milioi euroko bolumen ekonomikoa** kudeatu zuten; hau da, EAEko BPGaren %2,2.

Era berean, sektoreak hainbat esparrutan egiten du lan, adibidez: soziala-zeharkakoa edo zibila (adinekoen, emakumeen, etorkinen eta abarren erakundeak biltzen ditu), gizarte-zerbitzuak, garapenerako nazioarteko lankidetzak, aisialdia, osasuna, enplegua eta beste batzuk.

Sektore horretako erakunde guztiek partekatzen dute **gizartea eraldatzeko helburua eta gizarte-proiektu justuago eta berdinzaleago baten defentsa**.

Erakundeen %95ek zerbitzu motaren bat eskaintzen dute. %75ek, gainera, beste gizarte-funtzio batzuk garatzen dituzte: intzidentzia, boluntariatzaaren sustapena, komunitate-

garapena, beharrak hautematea, ikerketa, etab. %45ek salaketa-jarduerak egiten dituzte, baina erakunde batzuek jarduera horrez gain, sareen bidez, intzidentziako beste jarduera batzuk ere egiten dituzte.

Erakundeen gaurkotasunean, krisia da faktore nagusia eta horrek eragina du etorkizuneko pertzepzioan. %22k bakarrik uste dute hurrengo 5 urteotan errazagoa izango dela haien helburuak betetzea. %52ren kasuan, azken hiru urteotan erabiltzaile kopurua handitu egin da eta erakundeen erdiak beharretan eta pertsonen profilean aldaketak detektatu dituzte.

Erakunde gehienen ustez, beharrezkoa da **komunikazio-ahaleginak areagotzea eta enpresekiko eta beste gizarte-eragile batzuekiko (sindikatuarekin, alderdi politikoekin, komunikabideekin eta gizarte-mugimenduekin adibidez) elkarlanean aurrera egitea**.

Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorea **gero eta egituratuago dago eta sare ugari sortu dira**. Horri esker, eragin soziala eta politikoa handitu ahal izango dira. Sareen bidez, errazagoa izango da erakundeen erronka komunetan aurrera egitea honako hauekin lotuta: sektoreak egiten duen ekarpen espezifikoa aitortzea eta sustatzea; eskubideen salaketako, sustapeneko eta defentsako ekintzen inpaktua; lan-baldintzen hobekuntza eta abar. Azken urteotan, gobernantzarekin lotuta, Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erakundeen eta sektore publikoaren arteko lankidetzan aurrera egin dugu Euskadiko eta Bizkaiko Elkarrikerketan Zibileko Mahaian bidez. Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorearen legearen onarpena une garrantzitsua izango da ere sektorea eta egiten duen ekarpen soziala aitortzeko.

Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorearen erronkak⁶

Era berean, Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorearen Liburu Zuriari esker, gainera, sektoreko erakundeekin batera, hamar



erronka identifikatu ahal izan ditugu eta haietako bakoitza lortzen saiatzeko orientabideak zehaztu ditugu:

- 0. erronka. Gure nortasun-ezaugarriak bultzatzea.
- 1. erronka. Sektorearen aniztasuna babestea.
- 2. erronka. Funtzioen eta eraldaketa-orientazioaren arteko oreka bultzatzea.
- 3. erronka. Herritarren arteko konexioa areagotzea eta oinarri soziala sendotzea.
- 4. erronka. Erakundearen eta hura osatzen dutenen arteko lotura indartzea eta lan-baldintzak hobetzea.
- 5. erronka. Erakundearen iraunkortasun ekonomikoan aurrera egitea.
- 6. erronka. Erakundearen zuzendaritza eta kudeaketa sendotzea balioen eta "krisi-garaien" arabera.
- 7. erronka. Gardentasuna eta kontuak ematea bermatzea, eta komunikazio-ahaleginak areagotzea.
- 8. erronka. Beste eragile batzuekiko harremana hobetzea eta sendotzea.
- 9. erronka. Esku-hartze zuzeneko erakundearen arteko lankidetzaren sustatzea.
- 10. erronka. Sektorearen egituraketan aurrera egitea.

Honako hamar erronka hauek Hirugarren Gizarte Sektorearen ikuspegiaren arabera dira:

- 1 Hirugarren Gizarte Sektore plurala;
- 2 aukera eraldatzaileak bultzatzeko gai dena;
- 3 oinarri sozial zabala duena;
- 4 erakundearen eta haiek osatzen dituzten pertsonen arteko lotura sendoa duena eta kalitatezko enplegua eskaintzen duena;
- 5 iraunkorra eta autonomoa;
- 6 indartua eta koherentea;
- 7 gardena eta aitortua;
- 8 beste eragile batzuekin lotura eta aliantzak dituen;
- 9 barne mailako loturak sendotzen dituen;
- 10 eta ondo egituratuta dagoena.

Plan estrategikoa prestatzeko hausnarketa-prozesuan aipatu diren kontuen artean, sektore eta sare gisa kontuan izan behar ditugun hainbat orientazio eta kezka jaso ditugu. Gehiegi luzatu gabe, aurrerago gure ariketa estrategikoarekin erlazionatuko ditugun hausnarketa batzuk islatu nahi ditugu:

- Hirugarren Gizarte Sektoreak ezin du lana ematen dion errealitatearekiko hurbiltasuna galdu: lurraldearekiko hurbiltasuna eta artatzen dituen errealitateen ezagutza baliatuz, komunikazioan duen eragina areagotu behar du.
- Erakundeek eta sareek, Sareen Sarea barne, gizartearen eraldatzeko laguntzeko betetzen ditugun zeregin ezberdinen (besteak beste, intzidentzia eta mobilizazioa, proiektu soziala eta erantzun azkarra) arteko oreka egokia mantendu behar dugu.
- Pairatzen ari garen krisi sozial, ekonomiko, instituzional eta etikoaren testuinguruan, ezin dugu Sareen Sare gisa dugun intzidentzia galdu erantzukizun publikoko zerbitzuen hornidurarako eredu misto bat (publiko-pribatua, kudeaketa publiko zuzenaren nagusitasunarekin eta gizarte-ekimenarekin batera) finkatzeko, arretarako komunitate-ereduarekin bat eginez eraginkortasuna mantenduta eta esternalizazioa, pribatizazioa eta merkantilizazioa saihestuta.
- Hirugarren Gizarte Sektoreak sektorearen ezagutza, gizartearen konfiantza, beste mugimenduekin (sozialak, besteak beste) sortutako harremana eta lankidetzaren barne hartzen duen konexioa egokia eta erraza izan behar du gizarte zibilararekin.
- Sektore gisa balioen krisiari eta desmobilizatu daitezkeen herritarrei adi egon behar dugu, parte hartzeko mekanismoak sustatuz, aktiboak izanez eta eskubideen galeraren salaketan, desberdintasunen aurkako borroketan eta abarretan parte hartuz.





- Sektore gisa, denon artean gizarte- eta garapen-eredu batekin (parte-hartzailea, aktiboa, kohesionatua, justua eta solidarioa) lotutako ongizate-ereduari buruzko diskurtso partekatua eraikitzeko gai izan behar dugu.
- Sareen Sarearen barruan berdintasuna sustatu behar dugu, aniztasuna eta gure arteko desberdintasunak errespetatuz.
- Hirugarren Gizarte Sektore gisa, gizarteari eta gure interes-taldeei zuzendutako komunikazio-ekintza indartu behar dugu, gizarteak gure sektorearen ekarpena onartu dezan eta sektorearen pertzepzio hobea izan dezan.
- Teknologia berriak aprobetxatu behar ditugu komunikazioa eta konexioa sustatzeko, sektorean ditugun urritasunak gainditzeko.
- Sektore gisa eta Sareen Sare gisa, oso zorrotzak izan behar dugu gardentasunari eta gizarteari zein gure interes-taldeei eman behar dizkiegun kontuei dagokionez.
- Sektorea, haren berariazko ezaugarriak eta sektoreak gizarteari, alderdi politikoei, sindikatuak eta erakunde sozioekonomikoei egiten dien ekarpena ezagutarazi behar dugu, haien arteko lankidetzak-formulak ahalbidetuz.
- Sektoreak eta Sareen Sareak beste gizarte-eragileekin harreman estuagoa izan behar dute, gurekin lankidetzan ari diren eragileak dibertsifikatuz sektorearen eragin eraldatzailea areagotzeko.
- Hona hemen estrategia nagusiak: Hirugarren Gizarte Sektorea erreferentziako gizarte-eragile gisa eratzea eta onartzea, hala nola, beste gizarte-eragileekin mantentzen dugun elkarriketa finkatzea, batez ere, elkarriketa zibil eta sozialean aktiboki eta eraginkorki parte hartuz.
- Sareen Sareak Hirugarren Gizarte Sektoreko sare guztiak biltzeko gai izan behar du, guztien sare bilaka gaitzen.
- Hirugarren Gizarte Sektorearekin identifikatzeko bidean aurrera egin behar dugu, gure arteko desberdintasunen baitan, nortasuna partekatzen dugula kontuan hartuta.
- Sektorea egituratzeko prozesuak Euskadiko sareen aniztasuna islatu behar du, sektorea eratze beharrezko konfiantza, parte-hartzea eta baterako erantzukizuna sortze aldera, errealitate, behar, sentsibilitate, posizio eta interes desberdinak biltzeko gaitasuna erakutsiz.
- Erakunde gisa, erreferentziako gizarte-eragile bilakatzeko, Sareen Sareak barne-partaidetza eta kanpo-komunikazio erraza eta eraginkorra bultzatzeko beharrezko egitura eta baliabideak izan behar ditu.

⁵ Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorearen Liburu Zuria. Dokumentua

⁶ Sektorearen erronka nagusiak eta haietako bakoitza lortzen saiatzeko orientabideak. (Liburu Zuriaren 10. atala, 170-204 or.). Dokumentua



Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala
Tercer Sector Social de Euskadi

2019^{RAKO} IKUSPEGIAREN ADIERAZPENA

Sareen Sarearen ikuspegiak 2019rako nahi dugun etorkizuna jasotzen du. Ikuspegia betetzeko helburuarekin prestatzen dugu; hortaz, pertsona guztientzako eguneroko erronka etengabea da. Ikuspegia prestatzean honako dimentsio hauek hartu ditugu kontuan: sareak garatzen duen jarduera, hartzaille zuzenak, erakundeak gizartean duen presentzia eta mantentzen dituen kanpo-harremanak, kideen artean biziko den barne-giroa, funtzionatzeko modua eta ikuspegia lortzeko baliabideen erabilera.

2019RAKO IKUSPEGIA

Sareen Sareak 3 urte barru nolakoa izan nahi duen definitzen du ikuspegiak.

Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektorea biltzea eta erreferentea izatea gizartean onartua izan dadin;

Esparru sozial eta politikoko eragile ezberdinekin elkarrizketarako gaitasuna izatea;

Gizarte justuagoa, elkartuagoa, inklusiboagoa, solidarioagoa, berdinzaleagoa, parte-hartzaileagoa eta demokratikoagoa eraikitzen laguntzea;

Inklusioa, bizi-kalitate hobea eta pertsonen eskubideen defentsa eraginkorra bermatuko dituen;

Hirugarren Gizarte Sektorea indartzea eta, aniztasuna kontuan hartuz, kohesionatuagoa izatea.

Horretarako, Sareen Sareak etorkizun-sena, asmo berritzailea, erantzukizunez eraikitze gaitasuna, diskurtso sendoa, sektoreko balioen eta horrek eragiten duen eraldaketa sozialaren bozgorailu eta bestelako gizarte-eragileekin harreman finkatua duen sareen sare izan nahi du, Hirugarren Gizarte Sektorearen aniztasuna biltzen duena, Hirugarren Gizarte Sektoreak Euskadiko lurralde historikoetan dituen eredu eta idiosinkrasia desberdinak kontuan hartzen dituen eta Estatuko zein erkidegoko beste sareek aintzat hartzen duten sare, alegia.

Sareen Sareak bertako kide diren sareen berariazko eremuak eta ahotsak errespetatzen ditu, diskurtso partekatua sortzeko gai da, haren kide guztiek aktiboki eta inklusiboki parte hartzen dute, egitura ahaldundua du eta sarearen independentzia eta jasangarritasuna bermatzeko nahikoa baliabide ditu.

HEDAPEN ESTRATEGIKOA


HITZAURREA

Sareen Sarearentzat, erakunde gisa, funtsezkoa da gure nortasuna ezagutzea, nor garen eta gure jatorria, historia, balioak, indarguneak eta ahulguneak zeintzuk diren jakitea. Informazio horrek guztiak erakusten du gure jardueraz eta bizi dugun momentuaz kontziente garela, eta hurrengo urteetako lana kontzientzia eta koherentzia maila berdinarekin planteatzen laguntzen digu.

Hurrengo urteotan sareen sare gisa ditugun erronkek helburu nagusi bat dute: **erreferentziako gizarte-eragile izatea**. Hori lortzeko, bost estrategia nagusi definitu ditugu. Zehazki, Sareen Sareak honako hauen alde apustu egiten du:

- A.- Iraunkortasunean, gardentasunean eta antolaketaren malgutasunean sakontzea.
- B. eta C.- Barne-eraikuntzan aurrera egitea, euskal Hirugarren Gizarte Sektorea garela sentituz, eta elkarren arteko ezagutza sustatuz.
- D.- Harreman estrategikoak (aliantzak) identifikatu eta eraikitzea.
- E.- Intzidentzia proaktiboa eta gobernantza-eredu bat sortzea.
- F.- Gure kanpo-komunikazioa eta proiektzioa bultzatzea.

Hori guztia Euskadiko Hirugarren Gizarte Sektoreko erreferentziako eragile gisa onar gaitzaten.





ILDO ESTRATEGIKOAK	HELBURUAK
A. IRAUNKORTASUNA, GARDENTASUNA ETA MALGUTASUNA	1. Egitura bideragarri, iraunkor eta sendoa bultzatzea. Helburuak lortzeko funtzionamenduetan egitura profesional eta eraginkorra ezartzea. 2. Parte-hartzean eta barne-kohesioan aurrera egitea. 3. Barne- eta kanpo-gardentasunean aurrera egitea.
B. EUSKAL HIRUGARREN GIZARTE-SEKTOREA GARELA SENTITZEA	4. Parte hartzeko espazioa sortu eta dinamizatzea, egungo eta etorkizuneko sare eta errealitate guztiak erakarriz.
C. EZAGUTZEA, ERAIKITZEA ETA ELKARBANATZEA	5. Hausnarketa iraunkor eta parte-hartzailearen bidez, Hirugarren Sektorearen errealitateari buruzko ezagutza sustatzea eta elkarbanatzea.
D. HARREMAN ESTRATEGIKOAK IDENTIFIKATZEA ETA ERAIKITZEA	6. Guztiz edo neurri batean egiteko bera lortu nahi dugun erakunde eta eragileekin harreman-sarea sortzea.
E. GOBERNANTZA ETA INTZIDENTZIA PROAKTIBOA	7. Ongizatearen gizarte-ereduan eta politika publikoen defentsan aktiboki eragitea eta parte hartzea, elkarriketarako espazioak indartuz.
F. KANPO-KOMUNIKAZIOA	8. Kanpora komunikatzea eta proiektatzea.
G. ERREFERENTZIAZKO GIZARTE-ERAGILEA	9. Gizarte-ereduaren sustapena eta defentsa.
	10. Sektorearen sustapena eta aitorpena.
	11. Mobilizazioa eta intzidentzia publikoa.
	12. Elkarriketa politiko eta instituzionala.
	13. Gizarte-proiektzioa.

JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA


Plan Estrategikoaren funtsezko partea da planean jasotzen diren helburu eta jarduera-ildoen jarraipenerako eta garapenerako mekanismoak ezartzea, bai eta planaren implementazioa ebaluatzea ere, betetze-maila neurtu dezaketen hainbat adierazle kuantitatibo eta kualitatibo erabilita.

Jarraipen etengabea egingo dugu Plana garatzen den bitartean. Horrela, estrategien eboluzioa eta garapena denbora errealean "kontrolatzeko" eta "neurtzeko" aukera izango dugu eta plana ezartzean aurki daitezkeen hutsuneak zuzendu ahal izango ditugu, lortutako emaitzak oinarri hartuta helburu berriak onartzeko. Ebaluazioa emaitzak neurtzeko eta berariazko helburuak zein proposatutako jarduera-ildoak nola betetzen diren ikusteko aukera ematen digun prozesua da. Ebaluazioak une jakin batean "etenaldi" bat egiteko eta proposatutako helburua errealitatearekin erkatzeko aukera ematen digu.

Jarraipena eta ebaluazioa egiteko, hainbat adierazle kuantitatibo eta kualitatibo ezarriko ditugu, bai eta aginte-koadro integral bat, non helburu eta jarduera-ildo bakoitzean lortutako emaitza hoberenak neurtzeko epeak ezarriko diren.

Kudeaketa kontrolatzeko sistema honetarako gomendatzen diren oinarritzko elementuak hauexek dira: **aginte-koadro integrala**, erreferentziako adierazle nagusiak jasotzen dituen, eta **antolakuntza-koadroa**, Sareen Sarearen antolakuntza-egituraren eta funtzionamendu-dinamikaren araberako garapena eta jarraipena egiten duena. Bi tresna horiek diseinu-prozesuaren parte dira eta lotura zuzena dute Sareen Sarearen **Urteko Kudeaketa-planarekin**.





Sareen sarea

Euskadiko Hirugarren
Sektore Soziala
Tercer Sector Social
de Euskadi